

ULIA

Ulia mendia balio naturalistiko handiko tokia da, batez ere haren iparraldea, itsasora ematen duen aldea, batetik, gazitasun handia duelako eta ozeanoko haizeak jotzen duelako han, eta, bestetik, mendiko zoru silizeoak osaera berezia duelako.

Horren ondorioz, hainbat habitat sortu dira, bereziak izateagatik interes handikoak direnak: hala nola kostaldeko itsaslabarrak eta ezaugarri horien mendekoak diren espezieak.

Horiek hala direla, kostaldea babestua dago Europako Natura 2000 sarean, Kontserbazio Bereziko Eremu gisa, eta mendi osoa ere Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak babestua dago, nahiz eta oraindik onartzeko dagoen eremu horretako arauak eta erabilerak zehaztuko dituen Plan Berezia.

HABITAT

Ulia mendiko habitat aipagarrienak honako hauek dira:

- **Kostaldeko itsaslabarrak eta txilardiak:** Kontserbazio Bereziko Eremu gisa (KBE, ES2120014, Ulia) eta Interes Naturalistiko Eremu gisa (INE) daude sailkatuta, Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen (LAG) arabera.
- **Barrakaldeko ameztia:** 12 hektareako basoa da, oso gaztea, berritze fasean dagoena, eta tamaina handiko hainbat ale ditu, intereseko espezieentzako habitat izan daitezkeenak.
- **Txilardi-otadiak:** Uliako parte handi bat hartzen dute.
- **Hegoaldeko hariztiak:** zatikatuta daude, baina interes handi samarreko ale helduak dituzte, eta ale helduen eremuak ere badira, zuhaitzi natural gazteen eta ordezkatzeko etapen dauden zuhaitzen artean.
- **Kutraiko iturria:** hezegune artifiziala, garai bateko ikuztegia, anfibio espezie interesgarriak dituena.
- **Mendiolako hareharri azaleratzeak:** Uliako ipar-ekialdean daude, eta baldintza egokiak dituzte narrasti interesgarri batzuk izateko.
- **Manteo-Ategorrietako zuhaitzia:** mosaiko zatikatua, baso misto hostoerorkorrekoa, ornogabe mota ugari hartzeko ahalmen handia duena.

ESPEZIEAK

Bertan dauden espezie faunistikoen artean, honako hauek dira esanguratsuenak:

1. **Ornogabeak:** Kaprikornio handia (*Cerambyx cerdo*) eta arkanbelea (*Lucanus cervus*).
2. **Herpetoak (anfibioak eta narrastiak):** uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*), txantxiku arrunta (*Alytes obstetricans*), zirauna (*Anguis fragilis*), musker berdea (*Lacerta bilineata*), horma-sugandila (*Podarcis muralis*), sugandila arrea (*Podarcis liolepis*) (lehen sugandila iberiarra, *Podarcis hispanicus*), suge leuna (*Coronella sp.*).
3. **Hegaztiak:** Ulian, 130 hegazti espezie erregistratu dira; horien artean 30, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan ageri dira. Nabarmenenak: miru gorria (*Milvus milvus*), itsas enara beltza (*Chlidonias niger*), ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*), txirritxo txikia (*Charadrius dubius*), argi-oilarra (*Upupa epops*), uhalde-enara (*Riparia riparia*) eta buztangorri

argia (*Phoenicurus phoenicurus*), belatz handia (*Falco peregrinus*), kaio iluna (*Larus fuscus*); horrez gain, kaio hankahorien hiru kolonia ere badira, lekurik helezinenetan.

4.Ugaztunak: basasagua (*Apodemus sylvaticus*), triku arrunta (*Erinaceus europaeus*), lepazuria (*Martes foina*), erbinudea (*Mustela nivalis*), etxe-katua (*Felis catus*), eta saguzarren artean, arrunta (*Pipistrellus pipistrellus*), Kuhl pipistrela (*Pipistrellus kuhlii*) eta baratze-saguzarra (*Eptesicus serotinus*).

Landareen artean, kostaldeko lerroan jaiotzen diren espezie mehatxatu hauek azpimarratu behar dira: *Armeria euscadiensis* eta *Narcissus pseudonarcissus* subsp. *pallidiflorus*.

Gogoan izan behar dugu, bestalde, Uria mendia oso gertu dagoela hiritik, eta, horregatik, herritarrek beti jo izan dutela hara aisialdian, batez ere han den atsedenekura, ekipamenduz hornitua baitago: aparkalekua, aterpetxea, taberna, piknikguneak...

ULIA

El monte Ulía constituye un lugar de elevado valor naturalístico, especialmente en la ladera norte que da al mar, por las condiciones de salinidad y vientos del océano le confiere y por la singular composición del suelo silíceo del monte.

Estos factores han propiciado la presencia de algunos hábitats de alto interés, por su singularidad, como son los acantilados costeros, y de especies dependientes de estas únicas características.

Por todo ello, la zona costera se encuentra protegida dentro de la Red Natura 2000 europea, como Zona Especial de Conservación, y el conjunto del monte está protegido por el Plan General de Ordenación Urbana vigente, pendiente de que se apruebe el Plan Especial que detallará las normas y usos en este área.

HABITATS

Entre los hábitats más destacables del monte Ulía tenemos:

- **Acantilados y brezales costeros, catalogados como Zona de Especial Conservación (ZEC, ES2120014, Ulia) y como Área de Interés Naturalístico (AIN)** según las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT).
- **Marojal de Barrakaldea;** con 12 hectáreas, es un bosque muy joven en fase de regeneración, con algunos ejemplares de gran porte, y es hábitat potencial para especies de interés.
- **Brezales-argomales** que ocupan una gran extensión en Ulía.
- Robledales de la cara sur, fragmentados pero con ejemplares adultos de cierto interés y zonas de adultas entremezclados con bosquetes naturales jóvenes y etapas de sustitución.
- **Fuente de Kutraia:** humedal artificial, antiguo lavadero, con especies de anfibios interesantes.
- **Afloramientos de areniscas de Mendiola,** en la zona NE de Ulía, enclaves favorables para la presencia de ciertos reptiles de interés.
- **Bosquete de Manteo-Ategorrieta:** mosaico fragmentado de bosque mixto caducifolio con gran potencial de albergue de alta diversidad de invertebrados.

ESPECIES

Entre las especies faunísticas presentes destacan, entre otras:

- **Invertebrados:** Gran capricornio (*Cerambyx cerdo*) y Ciervo volante (*Lucanus cervus*).
- **Herpetos (anfibios y reptiles):** Tritón palmeado (*Lissotriton helveticus*), Sapo partero común (*Alytes obstetricans*), Lución (*Anguis fragilis*), Lagarto verde (*Lacerta bilineata*), Lagartija roquera (*Podarcis muralis*), Lagartija parda (*Podarcis liolepis*, antes lagartija ibérica *Podarcis hispanicus*), Culebra lisa (*Coronella* sp.).
- **Aves:** En Ulía se han registrado 130 especies de aves, entre ellas 30 especies incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas. Destacan: milano real (*Milvus milvus*), fumarel común (*Chlidonias niger*), cormorán moñudo (*Phalacrocorax aristotelis*), chorlito chico (*Charadrius dubius*), abubilla (*Upupa epops*), avión zapador (*Riparia riparia*) y el colirrojo real (*Phoenicurus phoenicurus*), halcón peregrino (*Falco peregrinus*), gaviota sombría (*Larus fuscus*), así como tres colonias de gaviota patiamarilla en las zonas más inaccesibles.
- **Mamíferos:** ratón de campo (*Apodemus sylvaticus*), erizo común (*Erinaceus europaeus*), garduña (*Martes foina*), comadreja (*Mustela nivalis*), gato doméstico (*Felis catus*), y dentro de los murciélagos el enano (*Pipistrellus pipistrellus*), el de borde claro (*Pipistrellus kuhlii*) y el hortelano (*Eptesicus serotinus*).



▶ Parke eta Lorategiak
Parques y Jardines

Urdaneta, 13 | Tel. 943481060 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

FLORA

- Entre la flora hay que destacar las especies amenazadas que crecen en la franja costera, como *Armeria euscadiensis* y *Narcissus pseudonarcissus* subsp. *Pallidiflorus*.

Finalmente, hay que recordar que la cercanía del monte Ulía a la ciudad hace que haya sido siempre un lugar muy frecuentado por la ciudadanía como lugar de ocio y esparcimiento, en mayor densidad en el área recreativa que existe y que cuenta con ciertos equipamientos (parking, albergue, bar, zonas de picnic...).